**OSASUN SAILA**
***(Osakidetza)***

DEIALDIA, Osakidetzarena, «Deba Garaia-Arrasateko ospitalean ekipo elektrogeno bat jartzea» kontratatzeko lehiaketa publikoaren berri emateko dena. 7435

DEIALDIA, Osakidetzarena, «Deba Garaia-Arrasateko ospitalean transformazio zentro bat jartzea» kontratatzeko lehiaketa publikoaren berri emateko dena. 7436

**LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA**

ERABAKIA, 1997ko apirilaren 17koa, Ingurugiroaren Kalitatearen zuzendariarena, «Hondakin toxiko eta arriskutsuen sorkuntza, mugimendu eta kudeaketa jarduerei buruzko azterlana» burutzeko lehiaketarako deia egiten duena. 7437

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

ERABAKIA, 1997ko apirilaren 18koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearena, 22/97 lehiaketa publikoa iragartzeko dena. Lehiaketa horren bitartez Leioako Medikuntza Fakultaterako elektroforesi sistema bat erosteko kontratua adjudikatuko da. 7439

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**
***(Servicio vasco de salud)***

CONVOCATORIA de Osakidetza - Servicio vasco de salud, por la que se anuncia concurso público para la contratación de «Instalación de un grupo electrógeno en el Hospital del Alto Deba-Mondragón». 7435

CONVOCATORIA de Osakidetza - Servicio vasco de salud, por la que se anuncia concurso público para la contratación de «Instalación de un centro de transformación en el Hospital del Alto Deba-Mondragón». 7436

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE**

RESOLUCIÓN de 17 de abril de 1997, del Director de Calidad Ambiental, por la que se acuerda convocar Concurso para el «Estudio sobre las Actividades de Producción, Movimiento y Gestión de Residuos Tóxicos y Peligrosos». 7437

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO**

RESOLUCIÓN de 18 de abril de 1997, de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se anuncia Concurso Público n.º 22/97 para la Adjudicación del Contrato de Suministro de adquisición de un sistema de electroforesis, para la Facultad de Medicina en Leioa. 7439

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-2241

97/1997 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraipideak arautzen dituena.

Hezkuntza–sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan aitortzen denez, batxilergoaren zeregina izango da ikasleei adimen eta giza heldutasuna ematea, ondorengo ikasketak egiten jarraitu edo lanean hasteko modua izan dezaten. Lanbide Heziketari dagokionez, lanbide batean behar bezala aritzeko moduko prestakuntza eman behar zaiola ikasleari ezartzen da aipaturiko legean; areago, prestakuntza balioanitza eman behar da, geroko profesionalek beren lan–bizitzan izan ditzaketen aldaketetara moldatzeko gaitasuna izan dezaten. Helburu horiek betetzeari

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-2241

DECRETO 97/1997, de 29 de abril, por el que se establece la regulación del Bachillerato, las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos, y se dispone su implantación.

La Ley Orgánica 1/1990 de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, encomienda al bachillerato la misión de proporcionar a los alumnos una madurez intelectual y humana que les permita seguir estudios posteriores o incorporarse a la vida activa. En lo que respecta a la Formación Profesional, la misma Ley señala que debe capacitar para el desempeño cualificado de las distintas profesiones, proporcionando una formación polivalente que permita la adaptación al cambio y a las modificaciones que puedan producirse a lo largo de la vida laboral del profesional. Para conse-

begira, hurrengo xedapen hauek hartuko dira aintzat: Lege Organikoa bera; azaroaren 29ko 1700/1991 Errege Dekretua eta urriaren 2ko 1178/1992 Errege Dekretua, batxilergoko gutxienezko irakaskuntzak eta egitura ezartzen dituztenak; eta maiatzaren 7ko 676/1993 Errege Dekretua, Lanbide Heziketako tituluei eta gutxienezko irakaskuntzei buruzko jarraibide orokorrak ezartzen dituenak. Hortaz, aipaturiko xedapenak eta, herri–ikastetxeei dagokienez, Euskal Eskola Publikoaren Legea dira Dekretu honen lege–esparrua.

Batxilergoa orokortzeko aurrikusita zegoen ikasturtea 1998–1999 izan bazen ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ekainaren 14ko 986/1991 Errege Dekretuak sistema berriaren ezarpena aurreratzeko eskaintzen zuen aukeraz baliatuz, sistema berria lehenik ikastetxe jakin batzuetan ezarri zuen 1994ko irailaren 26ko Aginduaren arabera. Ikastetxe horietan egindako saiakuntza gogobetekoa izan da orokorrean; hori dela–eta, komenigarria dirudi, egin beharreko zuzenketa guztiak egin ondoren, 1997-98 ikasturtetik bertatik hasita Autonomi Erkidegoko maila horretako ikastetxe publiko eta pribatu guztietan Batxilergoa ezartzea, aipatu Errege Dekretuak hartarako uzten duen bidea oinarri hartuta. Ildo horretatik, 1994ko irailaren 26ko Agindua indargabetu egiten da, lehen maila gainditu duten ikasleei dagokienean izan ezik.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik iristen den batxilergoak bi ikasturteko iraupena du, lau motatan banatzen da eta hiru gai–multzo ditu: guztientzako jakintzagaiak, denentzat derrigorrezkoak, ikasle guztien prestakuntza bateratua eta orokorra bermatzen dutenak; modalitate bakoitzeko berariazko jakintzagaiak, ikasleek beren gaitasun eta interesen arabera ondoen doakien espezializazioa hauta dezaten, ikasketamota desberdinez gainera, modalitate bakoitzaren barruan ere hainbat aukera daudelako; eta, azkenik, aukerako jakintzagaien multzoa; horiek askoz libreago hauta daitezke, horrek bide emango die espezializazioan sakontzeko edo, aitzitik, lehen aukeran bazter utzitakoak, hots, hautatu ez dituen motetan beharrezkoak diren aukerako gaiak hautatzeko. Hori horrela izanik, batxilergoak titulu bakarra ematen badu ere, guztientzako gaiak dituen prestakuntza orokorra izateaz gain, aukera anitzak ere ematen ditu, ikasle bakoitzaren ezaugarrietara hobeto moldatzeko eta prestakuntza desberdinak hartzeko, bai ondorengo ikasketei begira (unibertsitatekoak, Lanbide Heziketako edo Arteko goi–mailakoak), bai lan–munduan hasteari begira.

I. Eranskinean dago jasota jakintzagaien laukia; guztientzakoak, modalitatekoak eta aukerakoak, bakoitzari astean zenbat ordu eskainiko zaizkion zehaztuz. Ikastetxeei dagokie Hezkuntza Administrazioak argitaratuko dituen curriculumak bertako ezaugarrietara egokitzea, Dekretuak ezartzen dituen gutxienezkoekin egingo duten ikasketa programaren barruan. Irakasleei

guir estas finalidades, en cumplimiento de lo dispuesto por la propia Ley Orgánica, los RR.DD. 1700/1991 de 29 de noviembre y 1178/1992 de 2 de octubre establecen, respectivamente la estructura y las enseñanzas mínimas del Bachillerato, y el R.D. 676/1993 de 7 de mayo, las directrices generales sobre los títulos y las enseñanzas mínimas de formación profesional. Son las Disposiciones mencionadas, además de la LEPV en lo que a los centros públicos respecta, las que configuran el marco en el que se inscribe el presente Decreto.

En lo que se refiere al Bachillerato, aunque la fecha prevista para su generalización es el curso 1998-1999, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, utilizando las posibilidades de implantación anticipada que ofrece el R.D. 986/1991 de 14 de junio, y dado que la experiencia conseguida en el número limitado de Centros que lo implantaron al amparo de la orden de 26 de septiembre de 1994 ha resultado satisfactoria en líneas generales, parece conveniente implantarlo, con las correcciones oportunas, ya desde el curso 1997-1998, en todos los Centros públicos y privados de ese nivel situados en el ámbito territorial de la CAPV, al amparo de la autorización contenida en el Real Decreto mencionado. En coherencia con ello se deroga la orden de 26 septiembre de 1994 salvo en lo que se refiere a los alumnos que hayan superado el primer curso.

El bachillerato, al que se accede a partir de la ESO, tiene una duración de dos cursos académicos, se estructura en cuatro modalidades, con tres grupos de materias: un grupo de materias comunes, obligatorias para todos, que garantizan la formación general unitaria de todos los alumnos; un grupo de materias específicas de cada una de las modalidades, que permite que los alumnos puedan iniciar una especialización acorde a sus aptitudes e intereses, no sólo por la propia existencia de diferentes modalidades sino por las opciones que, siempre dentro de la modalidad elegida, son posibles; y, por último un grupo de materias optativas entre las que los alumnos pueden optar mucho más libremente, lo que les permitirá profundizar en la especialización o, por el contrario, asegurar la reversibilidad de su primera opción, eligiendo como optativas materias que resultan necesarias en alguna de las modalidades no elegidas. Así pues el bachillerato que se establece resulta una etapa educativa que, manteniendo una unidad básica en la formación general garantizada por las materias comunes, y conduciendo a un título único, permite un grado notable de diversidad dirigido a una mayor adecuación a las características de cada alumno y a la preparación diversificada bien sea para estudios posteriores que pueden ser los universitarios o los ciclos superiores de formación profesional o de enseñanzas artísticas, ya sea para la incorporación al mundo del trabajo.

En el Anexo I se recoge el cuadro de materias Comunes, de Modalidad y Optativas y las horas semanales que habrán de dedicarse a cada una. A los Centros docentes corresponde adecuar los currículos, que la Administración Educativa ha de publicar, a sus concretas circunstancias, en el marco de su programación docente, cuyos elementos mínimos se fijan en el Decre-

dagokie eskolak ikasketa programa horien arabera ematea (herri ikastetxeetan ikasketa programa hori Curriculum Proiektuan gauzatzen da) eta ikasleen ikaskuntza, bere programazioa eta irakaslana ebaluatzea.

6. atalean batxilergoa urtebete aurreratzeko aukera ematen da eta DBHtik ez datozen ikasleak sistema berrian sartzeko baldintzak ere bertan ezartzen dira; lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan ikastetxeek bildu beharreko baldintzak eta hirugarrenean irakaskuntza berriak emango dituzten irakasleen baldintzak jasotzen dira; hirugarren xedapen gehigarrian musika–batxilergoa beste aukera baten gisa jasotzen da, LOGSEn ezarritako motetatik aparte, hala ezarrita baitago 288/1992 Dekretuan, hots, musika–irakaskuntzen oinarrizko eta erdiko maila eta maila horietara nola iritsi arautzen dituen Dekretuan. Laugarren xedapen gehigarrian, hezkuntza–premia bereziak dituzten ikasleei Dekretu honetan aipatzen diren ikasketak egiteko aukera ematen zaie, beti ere ikasketak lortzeko eskatzen diren gaitasun orokorrak errespetatzen badira.

Lanbide Heziketari dagokionez, legeak aitortzen dion helburua bete nahi badu, egokitu beharko du ekoizpen–inguruneak eskatzen duen kualifikazio–eskakizunetara. Ildo horretatik, hezkuntza–sistemak, prestakuntzaz gain, lanbide–gaitasuna ere eskaini behar du, hau da: enplegu jakin batean aritzeko gaitasunak, ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak, eman beharreko prestakuntza, beraz, lehiakorra eta espezialdua izango da.

Prestakuntza balioanitza eta lehiakorraren helburu bikoitza lortzearren, bereizi egiten da Lanbide Heziketa berrian, batetik, Oinarrizko Lanbide–Heziketa (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan sarturik), eta bestetik, Berariazko Lanbide Heziketa, Dekretu honetan arautzen dena. Dekretu hori azaroaren 22ko 447/1994 Dekretutik, Lanbide Heziketako irakaskuntzen antolamendu orokorra eta berorien tituluei buruzko jarraibideak ezartzen dituenetik, dator.

447/1994 Dekretuak, zioen adierazpenean, jasotzen zuen «Berariazko Lanbide Heziketa osatzen duten atalak hauexek direla: kasuan kasuko lanbidean aritzeko bidea ematen duen tituluari dagozkion lanbide–ezaugarriak, hots, ezaguerak, trebetasunak, gaitasunak eta jarrerak»; gainera, hori «bi mailatako prestakuntza–ziklotan dago banaturik: erdi–mailakoak, Bigarren Hezkuntzako Graduatu–titulua lortu ondoren egiten direnak, eta goi–mailakoak, Batxilergo–titulua lortu ondoren egiten direnak. Ziklo horiek gainditzeak, hurrenez hurren, Teknikari eta Goi–mailako Teknikari tituluak lortzeko eskubidea ematen du».

Bestalde, zera adirazten zuen: «Lanbide Heziketa eta ekoizpen–arloa uztartu beharra LOGSEn ere agertzen zen jasota (Hezkuntza–Sistemaren Antolamendu Orokorrari

to, y a los profesores impartir las enseñanzas conforme a dicha programación, que en los Centros públicos se estructura en el Proyecto curricular, y realizar la evaluación de los aprendizajes de los alumnos, y de su propia programación y práctica docente.

En el artículo 6 se fija el calendario de implantación del bachillerato y se establecen las condiciones de incorporación de los alumnos no procedentes de ESO; en las disposiciones adicionales primera y segunda se especifican los requisitos que deberán reunir los Centros y los profesores que impartan las nuevas enseñanzas, respectivamente; en la tercera se recoge el bachillerato de música, establecido como opción específicamente distinta de las modalidades establecidas por la LOGSE, por el Decreto 288/1992 por el que se establece el currículo del grado elemental y del grado medio de las enseñanzas de música y el acceso a dichos grados. En la disposición adicional cuarta se garantiza a los alumnos con necesidades educativas especiales la posibilidad de cursar los estudios a que se refiere el presente Decreto, siempre que se respeten las capacidades generales a cuya obtención se dirigen.

En lo que respecta a la Formación Profesional, las finalidad que la Ley le atribuye sólo puede conseguirse si se adecua la Formación Profesional Inicial a las necesidades reales de cualificación del entorno productivo y se logra que a través del sistema educativo no sólo se acredite formación sino también competencia profesional, entendida ésta como el conjunto de capacidades, conocimientos, destrezas y actitudes que capacitan para el desempeño de una profesión en el nivel requerido de empleo; se trata, pues, de lograr, también, una formación competente y especializada.

Para alcanzar este doble objetivo de formación polivalente y, a la vez, competente profesionalmente, el diseño de la nueva Formación Profesional diferencia entre Formación Profesional de Base de carácter polivalente (incluida en la Educación Secundaria Obligatoria y en el Bachillerato), y Formación Profesional Específica de carácter especializado, objeto de regulación mediante este Decreto, que arranca del Decreto 447/1994 de 22 de noviembre, por el que se establece la ordenación general de las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos.

El Decreto 447/1994 ya recogía en su exposición de motivos que «la Formación Profesional Específica está constituida por el conjunto de conocimientos, habilidades, destrezas y actitudes vinculadas a la competencia profesional característica de cada título que culminan la preparación para el ejercicio profesional»; además, ésta «se organiza en Ciclos Formativos de dos niveles: los de Grado Medio, que se cursan tras la obtención del título de Graduado en Educación Secundaria y los de Grado Superior que se realizan tras la obtención del título de Bachiller; la superación de los citados ciclos da derecho a la expedición de los títulos de Técnico y Técnico Superior respectivamente».

También expresaba que «la finalidad de aproximar la formación profesional y el mundo productivo demandada, así mismo, por la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de

buruzko urriaren 3ko 1/1990 Legea), eta helburu hori lortzeko bidea ez da bakarrik curriculumak diseinatzea, ekoizpen–arloaren beharrizanetara egokitzeko, baizik eta Prestakuntza Zikloen egitura bera ere antolatu eta egituratzea: zikloak lanbide–moduluetan banatuko dira, hau da, batasuna eta koherentzia duten ezaguera–multzoetan. Ezaguera–multzo horiek enplegurako balioa eta pisua duten gaitasun–unitate batekin edo gehiagorekin lotuko dira, halatan ezen enplegu–arloan balioetsi eta estimatuko diren.

Antolamendu horri jarraiki, orain arte elkarrengandik hain urrun egon diren Lanbide Heziketako bi motak berriro lotzeko moduak egongo dira; batetik, Prestakuntza Arautua edo hasierakoa, lehenengo enplegua lortzeko prestakuntza ematen duena, eta, bestetik, Prestakuntza Ez–Arautua, hezkuntza–sistema arautetik kanpo geratzen dena, funtsean langileentzako etengabeko prestakuntzako ekintzak eta lan–arloan berriro sartzeko prestakuntza eskaintzen duena.

Diseinu berriaren arabera, Lanbide Heziketa osotasuna da, profesionalaren bizitza osoan zehar jarraipena eta segida izango duena. Antolamendu berria dela bide, zikloak lanbide–moduluka eskaini ahal izango dira; hori horrela, hasierako prestakuntza amaitu dutenentzat etengabeko prestakuntza izateko ere baliagarria izango da, baita lanbide jakin bateko berariazko prestakuntza hartzeko ere, ziklo gehienak gaitasun–unitateren batekin baitaude loturik. Horretarako gaitasun–unitateak honela ulertu behar dira: kasuan kasuko lanbidean zenbait ataza egiteko behar diren lanbide–gaitasunen multzoak.

Profesional berriak ekoizpen–arloko eskakizunetara hobeki moldatzeko eta ikastetxeak lantegiekin hobeto uztartzeko, lantegietako praktikaldiak sartuko dira curriculumean, titulua emateko ezinbesteko baldintza gisa, hala baitago jasota urriaren 3ko 1/1990 LOGSEren 34.2 atalean.

Lanbide Heziketa berria antolatu eta arautzean egin beharreko beste erreferentzia bat egin behar da eta azkena izateagatik ez da aurrekoak baino garrantzi txikiagokoa. Ez dugu inoiz ahaztu behar zeintzuk diren Lanbide Heziketako edozein heziketaren helburu garrantzitsuenak: hobekuntza integrala etengabe bilatzea, kooperatibak eta talde–lana sustatzea, eragile izateko kultura hedatzea, ingurugiroa zaintzea, lana segurtasunez, lehiatsu eta erantzukizunez egitea, azken finean, prestakuntza eta ekoizpeneko bide guztien kalitatea bilatzea».

Hala ere, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzen araubide bateratua, baita berori ezartzearena ere beharrezkoa da, biak baitira unibertsitatez kanpoko eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzak, behin derrigorrezkoak ezarri eta gero, era horretan, batetik, LOGSEk ezarritako araubide orokorreko irakaskuntzen esparru osoa hartzen du; eta bestetik, elkarrengandik urrun egon eta elkarren arteko harremanik izan

octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, se logra no sólo a través del diseño de los currículos donde se pone especial atención en que respondan a las necesidades del entorno productivo, sino también merced a la organización y estructura de los propios Ciclos Formativos: se articulan internamente en módulos profesionales o conjunto de conocimientos con unidad y coherencia asociados a una o varias unidades de competencia que tienen valor y significado en el empleo de forma que sean reconocibles y reconocidas en él.

Esta organización posibilita interrelacionar dos modalidades de Formación Profesional tradicionalmente distantes entre sí: la Formación Reglada también denominada Inicial porque realiza acciones dirigidas a la formación para el primer empleo y la Formación No Reglada, denominada así porque queda fuera del Sistema Educativo Reglado, y que fundamentalmente realiza acciones de formación continua para trabajadores y de formación para la reinserción laboral.

El nuevo diseño concibe la Formación Profesional como un todo único que tiene una continuidad y progresión a lo largo de toda la vida del profesional: la nueva organización de los ciclos permite una oferta parcial de estos por módulos profesionales de forma que sirvan también de formación continuada para aquellos que han finalizado su formación inicial, y así mismo, de preparación específica a una profesión ya que la mayoría de ellos están ligados a una unidad de competencia entendida como el conjunto de capacidades profesionales necesarias para el desarrollo de una serie de realizaciones en la profesión correspondiente.

Un elemento que va a permitir una mejor adecuación de los nuevos profesionales a las demandas del ámbito productivo y, que facilitará la conexión entre los centros educativos y los de trabajo, es la inclusión obligatoria dentro del currículo de una fase de formación práctica en centros de trabajo, como condición imprescindible para la expedición del respectivo título al amparo de lo señalado en el artículo 34.2 de la citada Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

Una última referencia, no menos importante que las anteriores, a la hora de establecer la organización y ordenación de la nueva Formación Profesional, es señalar que una de las finalidades importantes de toda acción formativa en Formación Profesional debe ser la búsqueda de la mejora continua e integral, el fomento de actitudes cooperativas y de trabajo en equipo, la extensión de una cultura emprendedora y respetuosa con el medio ambiente, la ejecución del trabajo en condiciones de seguridad y de competencia y responsabilidad profesional, en definitiva, de búsqueda de la calidad en todos los procesos formativos y/o productivos».

Ahora bien, se hace preciso una regulación conjunta de las enseñanzas de Bachillerato y de Formación Profesional, así como de su implantación, dado que ambas son enseñanzas no universitarias y post-obligatorias, una vez que ya han sido implantadas las obligatorias, cubriendo así todo el ámbito de las enseñanzas de régimen general establecidas por la LOGSE; y, de otra parte, posibilitando la integración de unos estudios tradicio-

ez duten ikasketak sartzea ahalbidetzen du. Integrazio hori erreformak berak mesedetu egiten du, oinarrizko lanbide-heziketa bigarren hezkuntzaren baitan kokatzean.

Dekretu honen helburuetariko bat, 447/1994 Dekretuan jasoa, egitura, antolamendua eta jarraibideak ezartzea da, Prestakuntza Zikloek beren eginkizunak bete ditzaten; halaber, Euskal Autonomi Erkidegoko ziklo horien tituluen garapena eta curriculuma finkatzen ditu, maiatzaren 7ko 676/1993 Errege Dekretuaren arabera, hori baita Lanbide Heziketaren gutxienezko irakaskuntzei eta tituluei buruzko jarraibide orokorrak ezartzen dituen oinarrizko araua.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren proposamenez, Euskadiko Eskola–Kontseiluari entzun ondoren, Jaurlaritza Kontseiluak 1997ko apirilaen 29an egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA.– XEDAPEN OROKORRAK.

*1. atala.*– Lurralde–eremua eta helburua.

1.– Dekretu honen bidez Batxilergoa arautu eta bere curriculuma ezarri, Berariazko Lanbide Heziketa garatzeko jarraibideak eman eta irakaskuntza horiek ezartzeko baldintzak finkatuko dira Euskal Autonomi Erkidegoko lurralde–eremuan.

2.– Lanbide Heziketari dagokionez, hauexek dira berariazko xedeak:

– Lanbide Heziketako sistema bakarra lortzea, helburu bikoitza edukita: unibertsitateko ikasketak egiteko, prestatzeko eta lanbideren batean zuzenean jarduteko. Lanbide Heziketa hori Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako sarean emango da, baita Goi–mailako Lanbide Heziketako Institutuetan eta Teknologi Berrikuntzarako Institutuetan ere.

– Berariazko Lanbide Heziketa kalitatezkoa izatea lortzea, lehiakortasunean oinarriturik, gaur egungo eta etorkizuneko islada duten lanbideetan hasteko; aldi berean, ikasleen azken prestakuntza eta langileen hezkuntza–birmoldaketa izan dadin.

– Lanbide Heziketaren sistema bateratuan gizarte–eragileen erantzukizun partekatua izatea, gizarte, ekonomia eta lanbideetako beharrizanetara etengabe moldatzeko gauza izan dadin.

*2. atala.*– Batxilergoaren eta Berariazko Lanbide Heziketaren helburua.

1.– Batxilergoaren helburua ikasleek osoko prestakuntza eta adimen nahiz giza heldutasuna berenganatzea da, geroan unibertsitate–mailako ikasketak edo Goi–mailako Lanbide Heziketa egin ahal izan ditzaten eta, azken finean, lan–munduan sartzeko gauza izan daitezen.

nalmente alejados e incomunicados entre sí, integración que la propia reforma propicia al haber ubicado la formación profesional de base en el seno de la educación secundaria.

Uno de los objetivos de este Decreto, recogido del citado Decreto 447/1994, es establecer la estructura, organización y directrices que deben cumplir los Ciclos Formativos, el desarrollo de sus títulos y del currículo de los mismos en la Comunidad Autónoma del País Vasco recogiendo lo dispuesto en el Real Decreto 676/1993, de 7 de mayo, norma básica que establece las directrices generales sobre los títulos y las correspondientes enseñanzas mínimas de Formación Profesional.

En su virtud, oído el Consejo Escolar de Euskadi, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de abril de 1997,

DISPONGO:

CAPÍTULO I.– DISPOSICIONES GENERALES.

*Artículo 1.*– Objeto y ámbito de aplicación.

1.– La finalidad del presente decreto es establecer, en el ámbito territorial de la CAPV, la regulación del Bachillerato, la ordenación y las directrices para el desarrollo de la Formación Profesional Específica, y las condiciones de implantación de dichas enseñanzas.

2.– En lo que a la Formación Profesional respecta, tiene además como finalidades específicas las siguientes:

– Lograr un único sistema de formación profesional, impartido por una red de Centros de Enseñanza Secundaria, Institutos de Formación Profesional Superior, y de Institutos de Innovación Tecnológica, con el doble objetivo de preparar para estudios universitarios y para salidas profesionales inmediatas.

– Conseguir una Formación Profesional Específica de calidad basada en la competencia, de iniciación a profesiones con vigencia actual y alcance futuro, que sirva al mismo tiempo como formación terminal de los jóvenes escolares y como instrumento de mejora en la cualificación y reinserción educativa de la población laboral.

– Alcanzar un sistema integrado de formación profesional de responsabilidad compartida con los agentes sociales, capaz de mantenerse permanentemente adaptado a las necesidades sociales, económicas y profesionales.

*Artículo 2.*– Finalidad del Bachillerato y de la Formación Profesional Específica.

1.– El bachillerato tendrá como finalidad la formación integral de los alumnos, proporcionándoles una madurez intelectual y humana que les permita su incorporación a estudios posteriores de carácter universitario, a la formación profesional de grado superior y a la vida activa.

2.– Berariazko Lanbide Heziketaren irakaskuntzen xedeak hauexek dira:

– Titulu bakoitzak berezkoa duen lanbide–gaitasuna lortzea.

– Kasuan kasuko arloaren antolamendua eta ezaugarriak ezagutzea; lanbideetan jardunean hasteko moduak; oinarrizko lan–arloko legeak eta lan–harremanetan jatorria duten eskubide eta eginbeharrak ezagutzea; segurtasun–baldintzetan lan egiteko behar diren ezaguerak eta trebetasunak ikastea eta lan egitetik eratorritako arriskuei nola aurre egin jakitea.

– Pertsona eta profesional gisa nortasuna eta heldutasuna eskuratzea, ondorengo ikasketak errazago egiteko eta kualifikazioen aldaketetara hobeki moldatzeko.

– Norberaren lanbidea dela–eta, ingurugiroa zaintzen laguntzea eta prozesuen, produktuen eta zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntzan zuzenean partehartzea.

*3. atala.*– Irakasteredu elebidunak.

1.– Batxilergoari eta Berariazko Lanbide Heziketari dagozkien irakaskuntza guztiak A eta D ereduetan eman ahal izango dira, Euskal Herriko unibertsitateaz besteko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuaren II. Eranskinaren arabera eta otsailaren 19ko 1/1993 Eskola Publikoaren Legeak hizkuntza horiei ezartzen dien izaera instrumentalarekin.

*4. atala.*– Dekretu honetan arauturiko irakaskuntzak hartzen hasteko baldintzak.

1.– Batxilergoko lehenengo mailara eta Erdi–mailako Prestakuntza Zikloetara sartzeko Bigarren Hezkuntzako graduatu–tituluaren jabe izan behar da. Goi–mailako Lanbide Heziketako zikloetara sartzeko batxilergo–tituluaren jabe izan behar da.

2.– Hala eta guztiz ere, urriaren 3ko 1/1990 LOGSE Legearen 32.1 atalean ezarritakoarekin bat, aurreko pasartean aipaturiko titulaziorik gabe ere sartu ahal izango da Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetara, baldin eta froga bat gainditzen bada, zeina Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautuko baitu. Edozein modutan, goi mailako Prestakuntza Zikloetara bide honetatik sartu ahal izateko 20 urte beteak izan beharko dira.

3.– Erdi–mailako Prestakuntza Zikloren batean aurreko pasartean ezarritakoaren arabera sartu diren ikasleek ziklo hori gainditzen badute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehazten dituen batxilergo–motetara sartzeko eskubidea izango dute.

*5. atala.*– Aurreko ikasketa planetatik sartzea.

1.– Batxilergoko lehen mailara sartu ahal izango dute LOGSEk arautu gabeko ikasketa planetatik datozen eta honako kasu hauetakoren batean dauden ikasleek:

2.– Las enseñanzas de Formación Profesional Específica tiene como finalidades fundamentales las siguientes.

– Adquirir la competencia profesional característica de cada título.

– Comprender la organización y características del sector correspondiente; así como los mecanismos de inserción profesional; conocer la legislación laboral básica y los derechos y obligaciones que se deriven de las relaciones laborales, y adquirir los conocimientos y habilidades necesarios para trabajar en condiciones de seguridad y prevenir los posibles riesgos derivados de las situaciones de trabajo.

– Adquirir una identidad y madurez personal y profesional motivadora de futuros aprendizajes y adaptaciones al cambio de las cualificaciones.

– Participar activamente, por medio del ejercicio profesional, en el cuidado y respeto del medio ambiente y en la mejora continua de la calidad de los procesos, productos y/o servicios.

*Artículo 3.*– Modelos de enseñanza bilingüe.

1.– Todas las enseñanzas correspondiente al Bachillerato y a la Formación Profesional Específica podrán impartirse en los Modelos A y D, de acuerdo con el Anexo II del Decreto 138/1983 de 11 de julio por el que se regula el uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria en el País Vasco, con el carácter instrumental que les atribuye la Ley 1/1993 de 19 de febrero de la Escuela Pública Vasca.

*Artículo 4.*– Acceso a las enseñanzas reguladas en este Decreto.

1.– Para acceder a los estudios de primer curso del Bachillerato y a los Ciclos Formativos de grado medio será preciso estar en posesión del título de Graduado en Educación Secundaria. Para acceder a los Ciclos Formativos de Formación Profesional de grado superior será preciso estar en posesión del Título de bachiller.

2.– No obstante, de acuerdo a lo establecido en el artículo 32.1 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo se podrá también acceder a los Ciclos Formativos de Formación Profesional sin la titulación a que se refiere el apartado anterior, tras la superación de una prueba, cuya regulación será establecida por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación. En todo caso, para el acceso mediante esta vía a los ciclos formativos de grado superior se requerirá tener cumplidos veinte años de edad.

3.– Los alumnos que superen algún ciclo formativo de grado medio al que hubieran accedido de acuerdo con lo dispuesto en el apartado anterior tendrán derecho al acceso a las modalidades de Bachillerato que en el currículo del propio ciclo formativo se determine.

*Artículo 5.*– Acceso desde planes de estudios anteriores.

1.– Se podrán incorporar al primer curso de Bachillerato los alumnos procedentes de planes de estudios no regulados por la LOGSE que estén en alguno de los siguientes casos:

– IEEko lehen zikloko ikasketak gaindituak edo arlo bereko edo desberdinetako gehienez bi irakasgai gainditu gabe dauzkatenak.

– LH Ieko Tekniko Laguntzaile titulua lortua dutenak edo LH Ieko gehienez bi irakasgai gainditu gabe dauzkatenak.

– BBBko bigarren maila gainditua edo lehen eta bigarren mailako irakasgai bat edo bi gainditu gabe dutenak.

2.– Lege-arau honetan begiz jo gabeko kasuetan, Batxilergora lehen edo bigarren mailan sartzeko baldintzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finkatuko ditu indarrean dagoen legeria oinarri hartuta.

3.– Prestakuntza Zikloak erabat ezartzen ez diren artean, Berariazko Lanbide Heziketara zuzenean sartuko dira, 4. atalean aipatutakoez gain, arauz finkatzen diren baldintzak betetzen dituztenak.

*6. atala.*– Batxilergoko eta Prestakuntza Zikloetako irakaskuntzaren ezarpena.

1.– Batxilergoko lehen mailari dagokion irakaskuntza, ezarritako modalitateetan, 1997-98 ikasturtean hasiko da ematen ikastetxe guztietan, urrutiko irakaskuntzan, helduentzako berariazko eskalatzean, gaueko Batxilergoa barne, izan ezik; hauetan ezarpena Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenaren arabera egingo da. Erdi- eta Goi-mailako Prestakuntza Zikloen irakaskuntzak 1998-99 eta 1999-2000 ikasturteetan hasiko dira ematen ikastetxe guztietan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautzen duenaren arabera.

2.– Aurreko atalean xedatutakoa xedatu, Arte Batxilergoari dagokion irakaskuntza 1999-2000 ikasturtean hasiko da ematen.

## II. ATALBURUA.– BATXILERGOAREN HELBURUAK ETA EGITURA.

*7. atala.*– Batxilergoaren helburuak.

Batxilergoko curriculumaren helburua, orokorrean, ikasleengan honako gaitasun hauek garatzea da:

– Hautaturiko motak berezkoak dituen oinarrizko trebetasunak eta ezaguera zientifiko eta teknologikoak ikastea eta erabiltzea.

– Ikerketaren eta metodo zientifikoaren funtsezko atalak ulertzea.

– Mundu garaikidearen errealitateak, aurretikoak eta faktore eragileak aztertu eta balioestea, eta pertsonen zein herrien arteko diferentziekiko tolerantzia eta begirunezko jarrerak garatzea.

– Euskal Herriak berezkoak dituen ezaugarriak,

– Haber superado los estudios del primer ciclo de REM, o tener sin superar dos materias, como máximo, de la misma o de distintas áreas.

– Haber obtenido el título de Técnico Auxiliar en FP I, o tener sin superar, como máximo dos materias de FP Y.

– Haber aprobado el segundo curso de BUP, o tener sin superar una o dos materias de los dos primeros cursos.

2.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación determinará, de acuerdo con la legislación en vigor, las condiciones de incorporación al Bachillerato, en el primero o en el segundo curso, para los casos no previstos en esta disposición.

3.– En tanto se produzca la implantación generalizada de los Ciclos Formativos, tendrán acceso directo a la Formación Profesional Específica, además de los mencionados en el artículo 4, quienes reúnan los requisitos que reglamentariamente se determinen.

*Artículo 6.*– Implantación de las enseñanzas correspondientes al Bachillerato y a los Ciclos Formativos.

1.– Las enseñanzas correspondientes al primer curso del Bachillerato, en las modalidades comenzarán a impartirse en todos los Centros el curso 1997-1998, excepto en lo que se refiere a la enseñanza a distancia y al régimen de escolarización específico para personas adultas, incluido el Bachillerato Nocturno, en los que la implantación de dichas enseñanzas tendrá lugar de acuerdo con lo que disponga el Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Las enseñanzas correspondientes a los Ciclos Formativos de Grado Medio y Superior, comenzarán a impartirse en todos los centros los cursos 1998/99 y 1999/2000, de acuerdo con lo que disponga el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

2.– No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, las enseñanzas correspondientes a la modalidad del Bachillerato Artístico comenzarán a impartirse el curso 1999-2000.

## CAPÍTULO II.– OBJETIVOS Y ESTRUCTURA DEL BACHILLERATO.

*Artículo 7.*– Objetivos del bachillerato.

El currículo del Bachillerato, en su conjunto, tiene como objetivo desarrollar en los alumnos las siguientes capacidades:

– Poseer y utilizar los conocimientos científicos y tecnológicos fundamentales y las habilidades básicas propias de la modalidad escogida.

– Comprender los elementos fundamentales de la investigación y del método científico.

– Analizar y valorar críticamente las realidades del mundo contemporáneo y los antecedentes y factores que influyen en él, y desarrollar actitudes de tolerancia y respeto ante las diferencias entre las personas y los pueblos.

– Conocer y valorar las características naturales, cul-

natura, kultura, historia, gizarte, ekonomia eta hizkuntza–arlokoak, ezagutzea eta balioestea.

– Pertsona, gizarte eta moralaren aldetik heldutasuna finkatzea, ikasleek erantzuleak eta autonomoak izaten ikas dezaten.

– Gizarte–ingurunearen garapenean eta hobekuntzan solidarioki parte hartzea.

– Oinarrizko Lanbide Heziketari dagozkion ezague-rak, trebetasunak eta jarrerak hartzea, Goi–mailako Prestakuntza Zikloen irakaskuntzak probetxuz egiteko.

– Arte eta literaturaren sentikortasuna suspertzea, hori baita kultura–prestakuntzaren eta aberastasunaren jatorria.

– Gorputz Hezkuntza eta kirola pertsonaren garapena errazteko erabiltzea.

– Zuzen hitz egiteko gaitasuna eta etorria izatea EAEko bi hizkuntza ofizialetan, hizkuntza biez jabetzea eta beren autore eta obra nagusiak ezagutzea.

– Zuzen hitz egiteko gaitasuna eta etorria izatea gutxienez atzerriko hizkuntza batean.

*8. atala.*– Batxilergoaren egitura.

1.– Batxilergoa bi ikasturtez osatuko da, eta hurrengo modalitate hauek izango ditu: Artea, Natur eta Osasun Zientziak, Giza eta Gizarte Zientziak eta Teknologia. Modalitate denetarako guztientzako jakintzagaiak, modalitate bakoitzari dagozkion gaiak eta aukerako gaiak izango ditu. Batxilergoa egiten hasteko adina hamasei urtekoa izango da eskuarki.

2.– Guztientzako jakintzagaiak prestakuntza orokorrari begira daude. Modalitateko gaiek eta aukerakoek prestakuntza espezialduagoa emango diote ikasleari, ondorengo ikasketak ahalbidetzeko edo lanbideren batean hasteko.

*9. atala.*– Guztientzako jakintzagaiak eta modalitatekoak.

1.– I. eranskinean jasotzen dira Batxilergoko modalitate denetarako guztientzako jakintzagaiak, modalitate bakoitzekoak eta etapan zehar eman beharreko ikastorduak. Hezkuntza Administrazioak argitaratuko dituen curriculumen arabera emango dira.

2.– Ikasleek, etapan zehar, guztientzako jakintzagai denak eta hautaturiko modalitateko gutxienez sei hartuko dituzte.

3.– Ikastetxeek derrigorrean eman beharko dituzte ezarritako modalitateetako jakintzagai guztiak, bat bera ere eman gabe uzteke.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko xedapenak emango ditu bigarren mailara igarotzean modalitatez aldatu ahal izateko.

*10. atala.*– Aukerako jakintzagaiak.

1.– Ikastetxeek aukerako gaien eskaintza nahikoa egingo dute; hortaz, bi gai sartuko dira lehen mailan eta lau bigarrenean; batez ere, atzerriko bigarren hiz-

turales, históricas, sociales, económicas y lingüísticas que identifican Euskal herria.

– Consolidar una madurez personal, social y moral que les permita actuar de forma responsable y autónoma.

– Participar de forma solidaria en el desarrollo y mejora de su entorno social.

– Adquirir los conocimientos, destrezas y actitudes, necesarias como Formación Profesional de Base, para cursar con aprovechamiento las enseñanzas de los Ciclos Formativos de Grado Superior.

– Desarrollar la sensibilidad artística y literaria como fuente de formación y enriquecimiento cultural.

– Utilizar la educación física y el deporte para favorecer el desarrollo personal.

– Expresarse con fluidez y corrección en las dos lenguas oficiales de la CAPV, y poseer un conocimiento reflexivo de las mismas, y de los autores y obras más importantes escritas en ambas.

– Expresarse con fluidez y corrección al menos en una lengua extranjera.

*Artículo 8.*– Estructura del bachillerato.

1.– El bachillerato constará de dos cursos académicos y se organizará en las modalidades de Artes, Ciencias de la Naturaleza y de la Salud, Humanidades y Ciencias Sociales, y Tecnología, comprendiendo materias comunes a todas las modalidades, materias propias de cada modalidad y materias optativas. Se cursará normalmente a partir de los dieciséis años de edad.

2.– Las materias comunes contribuirán a la formación general. Las materias de modalidad y optativas proporcionarán al alumnado una formación más especializada preparándole y orientándole hacia estudios posteriores o hacia la actividad profesional.

*Artículo 9.*– Materias comunes y de modalidad.

1.– Las Materias comunes a todas las modalidades de bachillerato, y las materias propias de cada modalidad, así como las horas que deben asignarse a su estudio a lo largo de la etapa, son las que se establecen en el anexo I. Serán cursadas de acuerdo con los currículos que publique la Administración educativa.

2.– Todos los alumnos deberán cursar a lo largo de la etapa, todas las materias comunes y seis materias, al menos, de la modalidad que hayan elegido.

3.– Los Centros no podrán dejar de ofrecer, en ningún caso, ninguna de las materias propias de las modalidades que impartan.

4.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación dictará las disposiciones necesarias para posibilitar el cambio de modalidad al pasar a segundo curso.

*Artículo 10.*– Materias optativas.

1.– Todos los Centros realizarán una oferta suficiente de materias optativas que incluya, al menos 2 materias en primero y cuatro materias en segundo elegidas entre

kuntza bat eta Goi–mailako Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetara sartzeko eskatzen direnak, beti ere ikasle–kopuru nahikoa baldin badago. Salbuespen gisa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurretiko baimena lortu ondoren, eskaini ahal izango dira, aukerako gai gisa, ikastetxean ematen ez diren modalitateei dagozkienak.

2.– Ikasleek gai bat hautatu behar dute gutxienez lehenengo mailan eta bi gai bigarrenean, ikastetxeak eskaintzen dituen aukerako gaien artetik, hartuta ez dituen bere modalitateko gaien artetik eta ikastetxean ematen diren beste modalitateetako gaien artetik.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aukerako gai berriak eta beren curriculuma ezarri eta argitaratu ahal izango ditu. Salbuespen gisa, ikastetxeek proposaturiko aukerako gaiak emateko baimena eman ahal izango du, horretarako ezarriko den prozeduraren ildotik. Baimen horiek baliozkoak izango dira eskatu dituzten ikastetxeetarako, eta zehazturiko epealdian. Dena dela, baimena emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, iraungi egingo dira.

III. ATALBURUA.– BERARIAZKO LANBIDE HEZIKETAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOEN EGITURA ETA HELBURUAK.

*11. atala.*– Berariazko Lanbide Heziketaren egitura.

1.– Berariazko Lanbide Heziketako irakaskuntzak Erdi–mailako eta Goi–mailako Prestakuntza Zikloetan sailkatuko dira, lanbide–tituluak lortzeari begira. Zikloak modulu–egiturakoak izango dira, eta iraupena titulu bakoitzaren berariazko arauan zehaztuko da.

2.– Prestakuntza Ziklo guztiek lanbide–moduluen multzoa izango dute, eta kasu guztietan hurrengo hauek izango dituzte: Prestakuntza eta Lan–Orientabideko bat, Kalitate eta Etengabeko Hobekuntzako bat eta Lantegiko Prestakuntzako beste bat. Helburuak eta ezaugarriak IV. eranskinean biltzen dira.

*12. atala.*– Berariazko Lanbide Heziketaren helburuak.

1.– Berariazko Lanbide Heziketaren helburuak prestakuntza–ziklo bakoitzaren curriculumetan zehaztuko dira.

2.– Erdi–mailako Prestakuntza Zikloen helburu orokorra lanbideren batean jarduteko gaitzea da, batez ere, exekuzio eta antolamendu–lanak egiten irakastea. Horrelako lan batzuk autonomoak izan daitezke eta lanbide bakoitzak berezkoak dituen tresnak eta teknikak erabiltzen ikastekoak izango dira.

3.– Goi–mailako Prestakuntza Zikloetan ikasleak lanbide–eginkizunetan gaituko dira. Geroko profesionalek lanbide–eginkizunak burutzeko gauza izan beharko dute, bai beren kabuz, bai talde–lanean.

las que figuran el anexo III preferentemente una segunda lengua extranjera y aquellas materias que deban ser cursadas para el acceso a los Ciclos Formativos de formación profesional de grado superior que demande un número suficiente de alumnos y alumnas. Excepcionalmente, previa autorización del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, podrá ofrecer también como materias optativas las materias propias de modalidades que no se impartan en el Centro.

2.– Los alumnos deberán elegir al menos una materia en primero y dos materias en segundo entre la oferta de optativas que haga el Centro, las materias de su modalidad que no curse como tales y las materias de otras modalidades que imparta el Centro.

3.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá establecer nuevas materias optativas y publicar su currículo. Excepcionalmente podrá autorizar la impartición de materias optativas propuestas por los Centros, de acuerdo con el procedimiento que establezca. Estas autorizaciones sólo serán válidas para los Centros que las hayan solicitado y durante el tiempo que en las mismas se determine, debiendo revocarse, en todo caso, si se modifican las circunstancias que hayan influido en cada autorización.

CAPÍTULO III.– ESTRUCTURA Y OBJETIVOS DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL ESPECÍFICA.

*Artículo 11.*– Estructura de la Formación Profesional Específica.

1.– Las enseñanzas de Formación Profesional Específica se ordenarán en Ciclos Formativos de Grado Medio y Grado Superior, que conducen a la obtención de títulos profesionales. Todos ellos serán de estructura modular y su duración se determinará en la regulación específica de cada título.

2.– Todos los Ciclos Formativos dispondrán de un conjunto de módulos profesionales incorporando en todos los casos uno de Formación y Orientación Laboral, otro de Calidad y Mejora Continua y otro de Formación en Centro de Trabajo.

*Artículo 12.*– Objetivos de la Formación Profesional Específica.

1.– Los objetivos de la Formación Profesional Específica serán los que determinen los distintos currículos de cada Ciclo Formativo.

2.– Es objetivo común de los Ciclos Formativos de Grado Medio capacitar en competencias profesionales para el ejercicio de actividades suficientemente determinadas por trabajos de ejecución y organización que pueden ser autónomos en el límite de la utilización de los instrumentos y técnicas que les son propias.

3.– Los Ciclos Formativos de Grado Superior capacitarán en competencias profesionales orientadas al ejercicio de actividades relacionadas con trabajos técnicos que pueden ser ejecutados de forma autónoma o compartiendo responsabilidades de encuadramiento y de coordinación.

*13. atala.*– Eskaintza–modalitateak.

1.– Ikastetxeek, orokorrean, baimenduta dauzkaten Prestakuntza Zikloak eskainiko dituzte. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimena eman ondoren, eta ekoizpen–sistemaren prestakuntza–beharrizanak direla–eta, Prestakuntza Zikloak eskaini ahal izango dizkiete helduei modu partzialean, urriaren 3ko 1/1990 LOGSE Legearen 53.2 atalean ezarritakoaren ildotik.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen duenarekin bat, eskaini ahal izango dira irakaskuntza horiek ikasleak bertaratu gabe ere, «urrutitik» alegia. Era berean, eskolatu gabeko ikasleek lanbide–tituluak eskuratzeko probak ere antolatu ahal izango dira.

*14. atala.*– Tituluen curriculum–garapenari buruzko jarraibideak.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Prestakuntza Ziklo bakoitzaren derrigorrezko curriculuma ezartzeko Jaurlaritzari proposatzen dionean, Euskal Autonomi Erkidegoko ekonomi eta gizarte–mailako garapenaren beharrizanak, ekoizpen–egiturako giza bitartekoak eta lanbide ikasketak ematen dituzten ikastetxeek ingurura egokitzeko duten beharra hartuko ditu kontuan.

2.– Proposamen horretan, gutxienezko irakaskuntzez gain, hurrengo xehetasun hauek ere agertuko dira gutxienez:

a) Titulua osatzen duten lanbide-moduluak.

b) Tituluaren derrigorrezko irakaskuntzak biltzen dituen curriculuma.

c) Lanbide–modulu bakoitzaren erreferentzia–ordutegia, modulua Prestakuntza Zikloaren eskaintza osoan sartzen denean, eta ordutegia, eskaintza partzialaren bidez egiten denean.

d) Zehaztapenak, balegozkio, lanbide–moduluen denbora–banaketa egiteko zikloan, eta moduluak behin betiko kokatzeko ikaste–prozesuan.

e) Ekoizpen–zentroko jarduerak egiteko erreferentzia–ordutegia eta lantegietako prestakuntza–moduluari dagokion ikastetxeko erreferentzia–ordutegia.

f) Irakaste–ikaste prozesurako jarraibideak eta ebaluazioa garatzekoak.

g) Goi–mailako Prestakuntza Zikloetarako, Batxilergoan gai jakin batzuk eginak izatea.

3.– Lanbide–moduluen helburuak «amaierako gaitasun» delakoen bidez adieraziko dira.

4.– Maiatzaren 7ko 676/1993 Errege Dekretuaren 10 e) atalean ezarritakoari lotuz, eta hor zehazturiko oinarrizko edukiak eta ordutegi–portzentaia aintzat harturik, derrigorrezko irakaskuntzen edukiek ez dute inolaz ere izango osoko ordutegiaren %85 baino gehia-

*Artículo 13.*– Modalidades de oferta.

1.– Los centros educativos ofrecerán con carácter general los Ciclos Formativos que tengan autorizados. Previa autorización del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por necesidades formativas del sistema productivo podrán ofrecer Ciclos Formativos de forma parcial, exclusivamente para personas adultas a tenor de lo dispuesto en el artículo 53.2. de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

2.– De acuerdo con lo que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación determine, podrán efectuarse ofertas de estas enseñanzas en régimen no presencial, con la denominación de «a distancia», y convocarse pruebas para la obtención de los títulos profesionales por parte de alumnos no escolarizados.

*Artículo 14.*– Directrices para el desarrollo curricular de los títulos.

1.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación al proponer al Gobierno el establecimiento del currículo obligatorio de cada ciclo formativo, tendrá en cuenta las necesidades del desarrollo económico y social y de recursos humanos de la estructura productiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y la necesaria adaptación al entorno de los Centros docentes que impartan enseñanzas profesionales.

2.– En dicha propuesta, además de las enseñanzas mínimas correspondientes, deberán figurar, al menos, los siguientes aspectos:

a) Los módulos profesionales que forman parte del título.

b) El currículo que constituye las enseñanzas obligatorias del título.

c) El horario de referencia de cada módulo profesional cuando éste se incluya en la oferta completa de ciclo formativo y el horario cuando se realice por oferta parcial.

d) Determinaciones, en su caso, para la distribución temporal de los distintos módulos profesionales en el ciclo y, si proceden, para el establecimiento de su ubicación definitiva dentro del proceso de aprendizaje.

e) El horario de referencia para las actividades en los centros productivos y en el centro educativo correspondiente al módulo de Formación en Centros de Trabajo.

f) Directrices para el proceso de enseñanza-aprendizaje y para el desarrollo de la evaluación.

g) Para los Ciclos Formativos de grado superior, la necesidad, en su caso, de haber cursado en Bachillerato determinadas materias.

3.– Los objetivos de los módulos profesionales vendrán expresados por medio de formulaciones denominadas «capacidades terminales».

4.– Ateniéndose en todo caso, a lo dispuesto en el artículo 10 e) del Real Decreto 676/1993, de 7 de mayo, e incluyendo, por tanto, los contenidos básicos y el porcentaje del horario allí señalado, los contenidos de las enseñanzas obligatorias, cuando se refieran a módu-

go, baldin eta Prestakuntza Zikloko eskaintza osoan sarturiko lanbide–moduluei badagozkie.

IV. ATALBURUA.– IRAKASKUNTZEN GARAPENA.

*15. atala.*– Curriculum Proiektua.

1.– Ikastetxeek ematen duten Batxilergoaren edo Prestakuntza Zikloen curriculuma zehaztu eta osatuko dute ikasketa programaren barruan; herri ikastetxeetan Curriculum Proiektua eginez eta onartuz gauzatuko da osatze hori. Proiektu horrek Batxilergoko eta Prestakuntza Zikloetako xedeak eta irakasgai eta lanbide modulu bakoitzekoak egokitu egingo ditu ikastetxeko testuinguru sozioekonomiko eta kulturalera eta ikasleen ezaugarrietara. Ikastetxeko Curriculum Proiektuak, Hezkuntza Proiektuarekin bat eginda, Legearen zehaztapenak jasoko ditu, hots, Euskal Eskola Publikoaren 47. atalean ezarritakoak. Pedagogia eta didaktikako irizpideen artetik gutxienez honako hauek jasoko ditu:

– Hizkuntzak ikasteko prozesuan erabiltzeko irizpideak.

– Modalitateko gaiak edo lanbide–moduluak antolatzea eta hurrenkeran jartzea.

– Aukerako gaiak eskaintzeko irizpideak.

– Ikasleak ebaluatzeko irizpideak.

– Curriculumaren garapenari eta irakaslanari buruzko irizpideak.

– Orientabide–plana.

– Emaitza onak azpimarratzeko eta ikus daitezkeen akatsak zuzentzeko jarraipen eta balioespen–jardunbideak.

2.– Curriculum–proiektuan gai guztien eta lanbide–moduluen programazio orokorrak ere sartuko dira. Programazioak espezialitateetako irakasleek egingo dituzte elkarrekin. Bertan edukien helburuak, banaketa, garapena eta hurrenkera jasoko dira eta, horiekin batera, izaera orokorreko hastapen metodologikoak, ebaluazio–prozesuari buruzko irizpideak eta ikasleek erabili behar duten ikasmateriala ere bai.

3.– Etapa, irakaskuntza–mota eta Prestakuntza Ziklo desberdinak ematen dituzten ikastetxeetan, Curriculum Proiektuak antzeko irizpideez tratatuko dira; hala ere, Batxilergoko modalitate edo Prestakuntza Ziklo bakoitzaren irakaskuntzek izan ditzaketen berezitasunak errespetatu behar dira.

4.– Lantegietako prestakuntza–moduluaren kasuan, arduradunak, lantegiko erakuslearekin batera, erabakiko ditu lantegian egon bitartean egin beharreko jarduerak eta ekintzak, baita emaitzak balioesteko irizpideak ere.

*16. atala.*– Irakasle taldea.

1.– Prestakuntza Ziklo berean lan egiten edo Batxi-

los profesionales incluidos en una oferta completa de ciclo formativo, en ningún caso requerirán más del 85 por 100 del horario total previsto para el mismo.

CAPÍTULO IV.– DESARROLLO DE LAS ENSEÑANZAS.

*Artículo 15.*– Proyecto curricular.

1.– Los Centros educativos concretarán y completarán el currículo del Bachillerato o de los Ciclos Formativos que impartan en el marco de su programación docente, que en los Centros públicos se concretará en la elaboración y aprobación del proyecto curricular. Dicho proyecto adecuará los objetivos del Bachillerato y de los Ciclos Formativos y de cada una de las materias y módulos profesionales al contexto socioeconómico y cultural del Centro y a las características del alumnado. El Proyecto Curricular del Centro, siempre en coherencia con el Proyecto educativo, contendrá las determinaciones establecidas en el artículo 47 de la LEPV, incluyendo entre los criterios pedagógicos y didácticos al menos los siguientes elementos:

– Criterios para la utilización de las lenguas en el proceso de aprendizaje.

– Organización de las materias de modalidad o de los módulos profesionales y su secuenciación.

– Criterios para la oferta de materias optativas.

– Criterios sobre la evaluación de los alumnos.

– Criterios sobre la evaluación del desarrollo del currículo y de la práctica docente.

– Plan de Orientación.

– Mecanismos de seguimiento y valoración que permitan potenciar los resultados positivos y subsanar las deficiencias pudieran observarse.

2.– Al proyecto curricular se incorporarán también las programaciones generales de las distintas materias y módulos profesionales, elaboradas en común por el profesorado de las respectivas especialidades. Deberán contener los objetivos, la distribución, desarrollo y secuenciación de los contenidos, los principios metodológicos de carácter general, los criterios sobre el proceso de evaluación, y los materiales didácticos para uso de los alumnos.

3.– En los centros que impartan distintas etapas, distintos tipos de enseñanza, o varios Ciclos Formativos, los distintos proyectos curriculares deberán plantearse con criterios homogéneos, si bien con respeto a las especificidades que sea conveniente establecer para las enseñanzas propias de cada modalidad de Bachillerato o de cada título en los Ciclos Formativos.

4.– En el caso específico del módulo de formación en centros de trabajo, el responsable del mismo acordará con el instructor del centro de trabajo las actividades y realizaciones que van a desarrollarse durante la estancia en el centro de trabajo, así como los criterios que permitan determinar el nivel de logro en dichas realizaciones.

*Artículo 16.*– El Equipo Docente.

1.– El conjunto de profesores que desarrollan su

lergoko ikasle–talde bati eskolak ematen dizkion irakasleen taldea da.

2.– Taldearen osakera ahalbait txikiena izango da, eta kideen arteko koordinazioa lortzen saiatuko da. Era berean, Batxilergoan edo Prestakuntza Zikloan zehar ikasle–talde berarekin jarraitzen ahaleginduko da.

3.– Era berean, koordinazioa ere eskatuko da batxilergoko modalitate berean eskola ematen duten irakasle–taldeen artean, batxilergoko modalitateen artean, lanbide–multzo bereko Prestakuntza Zikloen artean eta lanbide–multzo bereko edo desberdineko Prestakuntza Zikloen zeharkako lanbide–moduluak ematen dituztenen artean.

4.– Lanbide–modulu bakoitza irakasle bakar batek emango du, honako kasu hauetan izan ezik: irakasle espezialistek eman behar dituztenak, hala jasotzen baita urriaren 3ko 1/1990 LOGSE Lege Organikoaren 33.2 atalean, eskaintza partzialaren bidez egiten direnak eta, hala balegokie, lantegietako prestakuntzakoak.

*17. atala.*– Tutoretza eta orientabidea.

1.– Ikaste–talde bakoitzak bere irakasle–tutorea izango du. Eta AJAk (Antolamendu eta Jarduera Araudia) edo BAk (Barne Araudia) ematen dizkion ardurez gain, tutoreak ikasleen ebaluazioa koordinatuko ditu, baita eskola, pertsona eta lanbide arloetako orientabidea ere, ikastetxeak dituen barneko zein kanpoko orientabide–zerbitzuen laguntzaz eta aholkuez.

2.– Hezkuntza eta lanbide arloetako orientabidearen helburua ikasleak ikasteko prozesuan zehar gidatu eta laguntzea da, heldutasun pertsonala eskura dezaten, eta beren gaitasun eta interesekin bat datozen aukera akademiko eta profesionalak hauta ditzaten.

3.– Aparteko lanbide–moduluen eskaintza partziala denean, tutoretzaren berezko funtzioak lanbide–modulu bakoitza emateko ardura duen irakasleak erabiliko ditu.

*18. atala.*– Metodologia.

1.– Batxilergoan zehar aplikatzen den metodologia didaktikoaren bidez, ikasleek beren kabuz ikasteko, taldean lan egiteko eta ikerketarako beharrezko bideak aplikatzeko gaitasuna sustatuko du, irakasgaietako alderdi teorikoaren eta praktikoaren arteko harremanak azpimarratuz; eta Prestakuntza-Zikloei dagokienez, zientzia, teknologia eta antolamenduko edukiak uztartuz, parte hartu behar duen ekoizpen prozesuen ikuspegi orokorra eta koordinatua bultzatuko du.

2.– Prestakuntza–eskaintza helduei zuzentzen bazaie, edo urrutiko hezkuntza gisa egiten bada, tratamendu metodologikoa hezkuntza–mota horiek dituzten berezko ezaugarrietara moldatuko da.

labor en un mismo ciclo formativo o imparten clase a un grupo de alumnos de Bachillerato constituye el equipo docente responsable del mismo.

2.– La composición del equipo docente deberá ser lo más reducida posible, procurando la mayor coordinación entre sus componentes y la mayor continuidad con el mismo grupo de alumnos/as a lo largo del bachillerato o Ciclo formativo.

3.– Igualmente deberá existir coordinación entre los equipos docentes que imparten clase en la misma modalidad de bachillerato, entre las distintas modalidades de Bachillerato, entre Ciclos Formativos correspondientes a la misma familia profesional, y entre los que imparten módulos profesionales que son transversales a diferentes Ciclos Formativos de una o varias familias profesionales.

4.– Cada módulo profesional será impartido con carácter general por un sólo profesor, con excepción de aquellos en los que se contemple la colaboración de un profesor especialista, a tenor de lo establecido en el artículo 33.2 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, los que se realicen por oferta parcial y, si procede, los de Formación en Centros de Trabajo.

*Artículo 17.*– Tutoría y orientación.

1.– Cada grupo de alumnos tendrá un profesor tutor, que, sin perjuicio de las que le asigne el ROF o el RRI asumirá las funciones de coordinar la evaluación de los alumnos y su orientación escolar, personal y profesional, con el apoyo y asesoría de los servicios de orientación internos y externos de que disponga el Centro.

2.– La orientación educativa y profesional tendrá como objetivo guiar y asistir en su proceso educativo al alumnado en orden a alcanzar la madurez personal necesaria para realizar las opciones académicas y profesionales más acordes con sus capacidades e intereses.

3.– Cuando se trate de una oferta parcial de módulos profesionales independientes, las funciones propias de la tutoría serán ejercidas por el profesor o profesora responsable de la impartición de cada módulo profesional.

*Artículo 18.*– Metodología.

1.– La metodología didáctica, a lo largo de todo el Bachillerato favorecerá en el alumnado la capacidad para aprender por sí mismo, para trabajar en equipo, para aplicar los métodos apropiados de investigación, y subrayará la relación de los aspectos teóricos de las materias con sus aplicaciones prácticas; y respecto de los Ciclos Formativos, promoverá, mediante la integración de los contenidos científicos, tecnológicos y organizativos, una visión global y coordinada de los procesos productivos en los que debe intervenir.

2.– En el caso de que la oferta formativa se dirija a personas adultas, o se realice como educación a distancia, el tratamiento metodológico se adaptará a las peculiares características de la educación para las personas adultas o de la educación a distancia.

V. ATALBURUA.– EBALUAZIOA, SUSTAPENA ETA TITULAZIOA.

*19. atala.*– Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa.

1.– Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa etengabea izango da, Batxilergoan gaika eta Prestakuntza Zikloetan lanbide–moduluka. Erreferentzia curriculumetan ezarritako helburuak eta ebaluazio–irizpideak izango dira eta, Prestakuntza Zikloen kasuan, tituluaren berezko lanbide–gaitasuna hartuko da kontuan, hori baita erreferentzia Prestakuntza Zikloaren helburu orokorrak definitzeko eta hura osatzen duten lanbide–moduluen amaierako gaitasunak zehazteko, baita ikaslearen heldutasuna ikusteko ere, Dekretu honen 2.2. atalean ezarritako xedeekiko.

2.– Emaitzak bileretan jasoko dira, bilera horietara kasuan kasuko taldeko irakasle guztiak joango dira. Irakasle–tutorea koordinatzaile arituko da, eta ikastetxeko orientabide–zerbitzuen laguntzaz baliatuko da.

3.– Gai edo lanbide–modulu bakoitza ematen duen irakaslea izango da horren arduraduna; hala ere, gaiak edo moduluak osotasunean hartu behar ditu kontuan eta begiratuko die, halaber, ikasleen heldutasun akademikoari, dagokion curriculumak garatu nahi dituen gaitasunak aintzat harturik, eta Batxilergoaren kasuan, geroko ikasketetan aurrera egiteko aukerei.

4.– Ebaluazioko azken bileran gai edo lanbide–modulu guztietan emaitza positiboa lortu ez duten ikasleek aparteko deialdi bat izateko eskubidea izango dute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehazten duenaren arabera.

*20. atala.*– Ebaluazioko agiriak.

1.– Batxilergoko eta Prestakuntza Zikloetako ebaluazio–prozesuaren derrigorrezko agiriak hauexek dira: ikasketa–espedientea, ebaluazio–aktak, banakako ebaluazio–txostenak eta kalifikazio–liburua. Horietatik kalifikazio–liburua eta banakako ebaluazio–txostenak dira ikasleen ikasketa zein lurralde–mugikortasuna bermatzen duten agiriak.

2.– Gai edo modulu bakoitzaren azken ebaluazioaren emaitza, lantegietako prestakuntzakoa izan ezik, kalifikazio bidez emango da: 1etik 10era, hamarrenik gabe. Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloek, horrez gain, zikloko kalifikazio orokorra izango dute, eta hori ere zenbakiz adieraziko da, 1etik 10era, hamarren bakar batekin. Positiboak izango dira bost eta bostetik gorako kalifikazioak eta negatiboak gainerakoak.

3.– Lantegiko prestakuntzako lanbide–moduluko kalifikazioa gai / ez gai modukoa izango da.

*21. atala.*– Curriculum Proiektuaren eta irakaslanaren ebaluazioa.

CAPÍTULO V.– EVALUACIÓN, PROMOCIÓN Y TITULACIÓN.

*Artículo 19.*– Evaluación del aprendizaje de los alumnos.

1.– La evaluación del aprendizaje de los alumnos en el Bachillerato y Ciclos Formativos será continua y por materias o por módulos profesionales, respectivamente. Tendrá como referencia los objetivos y criterios de evaluación establecidos en los correspondientes currículos, y, en el caso de los Ciclos Formativos, se tendrá en cuenta la competencia profesional característica del título, que constituye la referencia para definir los objetivos generales del ciclo formativo y las capacidades terminales de los módulos profesionales que lo conforman, así como la madurez del alumno en relación con las finalidades establecidas en el artículo 2.2 de este Decreto.

2.– Sus resultados se consignarán en sesiones a las que asistirá todo el equipo docente del grupo de que se trate, coordinado por el profesor tutor y con el apoyo, en su caso, de los servicios de orientación de que disponga el Centro.

3.– Cada profesor será responsable de la evaluación de la materia o del módulo profesional que imparta; no obstante deberá considerar el conjunto de las materias o módulos y tendrá en cuenta la madurez académica de los alumnos en relación con las capacidades que pretende desarrollar el currículo correspondiente, y, en el caso de bachillerato, sus posibilidades de progreso en estudios posteriores.

4.– Los alumnos que no hayan tenido evaluación positiva en todas las materias o en todos los módulos profesionales en la última sesión de evaluación tendrán derecho a una convocatoria extraordinaria, de acuerdo con lo que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación determine.

*Artículo 20.*– Documentos de la evaluación.

1.– Son documentos obligatorios del proceso de evaluación en el Bachillerato y los Ciclos Formativos, el expediente académico, las actas de evaluación, los informes de evaluación individualizados y el Libro de Calificaciones, de los cuales son documentos que garantizan la movilidad académica y territorial de los alumnos el Libro de Calificaciones y los informes de evaluación individualizados.

2.– La expresión de la evaluación final en cada materia o módulo, salvo el de formación en centros de trabajo, se realizará en términos de calificaciones, que se formularán en cifras de 1 a 10, sin decimales. Los Ciclos Formativos de Formación Profesional tendrán además una evaluación final del ciclo expresada igualmente en términos numéricos, de 1 a 10 con una sola cifra decimal. Se considerarán positivas las calificaciones iguales o superiores a cinco y negativas las restantes.

3.– La calificación de módulo profesional de formación en centros de trabajo se formulará en términos de apto/no apto.

*Artículo 21.*– Evaluación del proyecto curricular y de la práctica docente.

Irakasleek Curriculum Proiektua, programazioak eta irakaslana ere ebaluatuko dituzte, klaustroak hartutako erabakien argitan; hori guztia ikasleek lortu beharreko helburuei begira.

*22. atala.*– Batxilergoko maila batetik bestera igarotzea.

1.– Lehenengo mailatik bigarrenera igaro ahal izateko, ikasleek ebaluazio positiboa lortu beharko dute egindako gai guztietan. Hala ere, gai batean edo bitan ebaluazio negatiboa lortu dutenek ere igaro ahal izango dira, baina gai horietan jarduera sendogarriak egin beharko dituzte, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehazten duen moduan. Bi gaitan baino gehiagotan ebaluazio negatiboa lortu duten ikasleek oso–osorik errepikatu beharko dute lehenengo maila.

2.– Bigarren mailaren amaieran bat, bi edo hiru gaitan ebaluazio negatiboa izan duten ikasleek gainditu gabeko gaiak errepikatu beharko dituzte soil–soilik. Hiru gaitan baino gehiagotan ebaluazio negatiboa lortu dutenek osorik errepikatu behar dute maila hori eta lehenengo mailatik geratu zaizkienak. Ondorio horietarako, gai bakartzat joko dira izen bera duten lehenengokoa eta bigarrenekoa.

3.– Ikasle batek ezin izango du bete lau urtetan baino gehiagotan Batxilergoko eskolatze arrunteko ikaspostu bera.

4.– Atal honetan xedaturikoa ez zaie aplikatuko urrutiko irakaskuntzako batxilergoa egiten duten ikasleei edo helduentzako eskolatze berezia jasotzen dutenei. Horiek gaika egin ahal izango dute Batxilergoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen dituen hurrenkera eta bateraezintasunezko arauekin bat.

*23. atala.*– Prestakuntza Ziklo batetik bestera igarotzeko baldintzak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehazten duenaren ildotik, zenbait lanbide–modulu gainditu beharra ezar daiteke baldintza gisa lantegiko prestakuntza–modulura sartu ahal izateko edo prestakuntza jakin bat behar duen beste moduluren batera sartzeko, batez ere, ikasturte bat baino iraupen luzeagoa duten Prestakuntza Zikloetara sartzeko.

*24. atala.*– Titulazioa.

1.– Batxilergoko edozein modalitateri dagozkion gai guztietan ebaluazio positiboa lortu duten ikasleek Batxilergoko titulua jasoko dute. Titulu horrek bidea emango die unibertsitate–mailako ikasketak egiteko, sarbide–probak gainditzen badituzte. Era berean, bidea emango die Goi–mailako Lanbide Heziketako zikloetara sartzeko, baita Arte–irakaskuntzetako Goi–mailara sartzeko ere, beti ere arauz ezarritako baldintzak betetzen badituzte edo probak gainditzen badituzte.

2.– Era berean, Erdi edo Goi–mailako Prestakuntza Ziklo baten lanbide–modulu guztietan kalifikazio posi-

Los profesores evaluarán además, de acuerdo con las decisiones adoptadas por el claustro, el proyecto curricular, las respectivas programaciones y su propia práctica docente, todo ello en relación con el logro de los objetivos educativos por los alumnos.

*Artículo 22.*– Promoción entre los cursos de bachillerato.

1.– Para acceder del primer curso al segundo los alumnos deberán haber sido evaluados positivamente en las materias cursadas. No obstante promocionarán también aquellos alumnos que hayan obtenido evaluación negativa en una o dos materias, debiendo realizar actividades de refuerzo en las mismas, de la manera que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación determine. Los alumnos que hayan obtenido evaluación negativa en más de dos materias deberán repetir el primer curso en su integridad.

2.– Los alumnos que al término del segundo curso hayan sido evaluados negativamente en una, dos, o tres materias deberán cursar únicamente dichas materias. Los que hayan sido evaluados negativamente en más de tres materias de ambos cursos deberán repetir íntegramente dicho curso además de las materias pendientes de primero. A estos efectos se considerarán una sola materia las de primero y segundo con la misma denominación.

3.– Ningún alumno podrá ocupar puesto escolar en régimen de escolarización ordinario en Bachillerato durante más de cuatro años.

4.– Lo dispuesto en este artículo no será de aplicación a los alumnos que cursen bachillerato en régimen de enseñanza a distancia o en régimen de escolarización específico para personas adultas, que podrán cursar el bachillerato por materias de acuerdo con las normas de prelación e incompatibilidad que el Departamento de Educación Universidades e Investigación establezca.

*Artículo 23.*– Condiciones de promoción en los Ciclos Profesionales.

De acuerdo con lo que determine el Departamento de Educación, Universidades e investigación, podrá condicionarse a la superación de determinados módulos profesionales el acceso al módulo de formación en centros de Trabajo o a otros módulos que requieran una determinada preparación, especialmente en aquellos Ciclos Formativos cuya duración supere la de un año académico.

*Artículo 24.*– Titulación.

1.– Los alumnos que hayan obtenido evaluación positiva en todas las materias del Bachillerato, en cualquiera de sus modalidades recibirán el título de Bachiller, que facultará para acceder a los estudios universitarios, previa la superación de las pruebas de acceso correspondientes. Igualmente facultará para acceder a los Ciclos Formativos de Formación profesional de grado superior y al grado superior de las enseñanzas artísticas, superadas, en su caso, las pruebas o cumplidos los requisitos reglamentariamente determinados.

2.– Igualmente los alumnos que hayan obtenido calificación positiva en todos los módulos profesionales

tiboa lortu duten ikasleek, hurrenez hurren, dagokion lanbideko Teknikari edo Goi–mailako Teknikari titulua jasotzeko eskubidea izango dute.

3.– Teknikari tituluak bidea emango du Batxilergoan sartzeko, Dekretu honen 4.3 atalean ezartzen denarekin bat. Goi–mailako Teknikari tituluak bidea emango du zehazten diren unibertsitate–ikasketak egiteko, egindako Lanbide Heziketako ikasketak kontuan edukita eta unibertsitatean sartzeko indarrean dauden arauekin bat.

*25. atala.*– Lanbide–moduluak ikasi izanaren egiaztagiria.

Prestakuntza Ziklo baten irakaskuntzen eskaintza partzialaren barruan lanbide–modulu bati dagozkion Berariazko Lanbide Heziketako ikasketak gainditzen duenari egiaztagiria emango zaio. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baldintzak ezarriko dizkie ikastetxeei egiaztagiriak eman ahal izateko.

## VI. ATALBURUA.– IKASTETXE PUBLIKOEN IRAKASKUNTZA-ANTOLAMENDUA.

*26. atala.*– Koordinazio–organoak.

1.– Dekretu honen 15.2 atalean aipatzen diren programazio orokorrak eta 16.2 atalean aipaturiko koordinazio–lanak prestatzeko eta aplikatzeko, Bigarren Hezkuntzako institutuek eta Goi–mailako Lanbide Heziketako institutuek, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 30.2 atalarekin bat, behar diren koordinazio–organoak jaso ahal izango dituzte beren antolamendu eta jardun–araudietan.

2.– Berariazko Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxe guztietan lantegiko praktikaldien koordinatzailea egongo da. Ikastetxearen eta lantegiaren arteko harremanak finkatu eta garatzea izango du eginkizun koordinatzaileak eta, gainera, lantegiko prestakuntza–moduluak ardurapean dituzten irakasleen ekintzak bateratzea ere bai. Irakasle horiek, erakuslearekin batera, garatu eta koordinatuko dituzte modulu horren irakaskuntza–ekintzak. Erakuslea ikastetxeko ikasleen prestakuntzaren arduraduna da, eta irakaskuntza–ekintzek beti lehentasuna izan dezaten begiratuko du.

3.– Lantegiko praktikaldien koordinatzailea pertsona bakarreko organo gisa hartu ahal izango da, ikastetxe bakoitzaren Antolamendu eta Jarduera Araudiaren (AJA) arabera, eta zuzendaritza–taldekoa izan daiteke.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko du aurreko ataletan esandako koordinazio–lanek noiz eta zein kasutan beharko dituzten ordu–kredituak edo bestelako pizgarriak.

de un ciclo formativo de grado medio o superior tendrán derecho a la obtención, respectivamente, del título de Técnico y Técnico Superior de la correspondiente profesión.

3.– El título de Técnico permitirá el acceso al Bachillerato de acuerdo con lo que se dispone en el artículo 4.3 de este Decreto. El título de Técnico Superior dará derecho de acceso directo a los estudios universitarios que se determinen, teniendo en cuenta su relación con los estudios de Formación Profesional cursados, de acuerdo con la normativa en vigor sobre los procedimientos de ingreso en la Universidad.

*Artículo 25.*– Acreditación de Enseñanza de Módulos Profesionales.

La superación de las enseñanzas de Formación Profesional Específica correspondientes a un módulo profesional, cuando éste haya sido cursado dentro de una oferta parcial de enseñanzas de un ciclo formativo, dará lugar a la correspondiente acreditación. El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, regulará las condiciones en las que los centros puedan extender dichas acreditaciones.

## CAPÍTULO VI.– ORGANIZACIÓN DOCENTE DE LOS CENTROS PÚBLICOS.

*Artículo 26.*– «rganos de coordinación.

1.– Tanto para la elaboración y aplicación de las programaciones generales a que se refiere el artículo 16.2 como para las tareas de coordinación mencionadas en el artículo 17.3 de este Decreto, los I.E.S. y los Institutos de Formación Profesional Superior podrán prever en su Reglamento de Organización y funcionamiento, de acuerdo con el artículo 30.2 de la LEPV, los órganos de coordinación que resulten necesarios.

2.– En todos los centros que impartan Formación Profesional Específica existirá un Coordinador de las prácticas en Centros de Trabajo, que tendrá como funciones principales la de favorecer el establecimiento y desarrollo de las relaciones entre el centro educativo y el de trabajo y la de coordinar las acciones de los diferentes profesores que tengan a su cargo módulos de Formación en Centros de Trabajo de su centro. Estos profesores serán los que desarrollen y, en su caso, coordinen las acciones docentes de dicho módulo en relación y en coordinación con el Instructor que es el especialista que aporta el centro de trabajo como responsable de la formación que el alumnado recibe en él, velando para que en todos los casos primen las actividades docentes.

3.– El coordinador de las Prácticas en Centros de Trabajo, de acuerdo con lo que disponga el Reglamento de Organización y Funcionamiento de cada Centro, podrá tener consideración de órgano unipersonal de gobierno.

4.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, determinará en qué casos o circunstancias las tareas de coordinación a que se refieren los apartados anteriores de este artículo pueden requerir créditos horarios u otros incentivos.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehena.–*

1.– Batxilergoa eta Prestakuntza Zikloak ematen dituzten Bigarren Hezkuntzako institutuek eta ikastetxe pribatuek, eta Goi–mailako Lanbide Heziketako institutuek 1004/1991 Errege Dekretuan eskaturiko gutxienezko baldintzak bete behar dituzte, baita, hala balegokie, Berariazko Lanbide Heziketako tituluak arautzen dituzten Errege Dekretuetan ezarritako baldintzak ere.

2.– Bigarren Hezkuntzako institutuek eta ikastetxe pribatuek Batxilergoko bi modalitate emango dituzte gutxienez, modalitate horiek dituzten gai guztiekin, eta, gainera, Erdi eta Goi–mailako Prestakuntza Zikloren bat, Arte Batxilergoa ematen duten Arte Eskolei buruzko apirilaren 15eko 389/1992 Errege Dekretuaren 5. xedapen gehigarrian ezarritakoaren kaltetan joan gabe eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eman ditzakeen salbuespenezko baimenen kaltetan joan gabe.

3.– Taldeko ikasle–kopurua 35ekoa izango da gehienez jota Batxilergoan eta 25ekoa Prestakuntza Ziklo bakoitzean.

*Bigarrena.–*

1.– Batxilergoari eta Prestakuntza Zikloei dagozkien irakaskuntzak Bigarren Hezkuntzako irakasleek eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek emango dituzte, 1701/1991 eta 1635/1995 Errege Dekretuetan ezarritakoaren ildotik. Aintzat hartuko dituzte, halaber, Berariazko Lanbide Heziketako tituluak arautzen dituzten Errege Dekretuak. Dena dela, lan–arloko profesionalak aldi baterako kontratatu ahal izango dira, zenbait lanbide–modulutan, administrazio–zuzenbideko erregimenean, LOGSEren 33.2 atalaren arabera.

2.– Irakasleak gaiei, lanbide–moduluei eta espezialitate berriei atxikiko zaizkie, aipaturiko Errege Dekretuetan xedaturikoa betez.

3.– Inolako espezialitateko irakasleei aldez aurretik atxiki ez zaizkien aukerako gaiak eta EAEn ezarritako lanbide–moduluak kasuan–kasuko curriculumetan aipatzen diren irakasleek emango dituzte. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimentzen dituen aukerako gaiak, Dekretu honen 8. atalaren arabera, baimenean bertan adierazten diren irakasleek baino ezin izango dituzte eman.

4.– Ikastetxe pribatuetan Batxilergoko irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek 1995eko uztailaren 24ko Aginduan ezarritako baldintzak bete behar dituzte; Prestakuntza Zikloetako irakaskuntzak ematen dituztenek, ordea, 1635/1995 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedaturikoari lotuko zaizkio.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–*

1.– Los I.E.S. y Centros privados que impartan enseñanzas correspondientes al Bachillerato y los Ciclos Formativos, así como los Institutos de Formación Profesional Superior, deberán cumplir los requisitos mínimos exigidos por el R.D. 1004/1991 y, en su caso, los que establecen los RR.DD. que regulan cada uno de los títulos en los que se articula la Formación Profesional Específica.

2.– Los I.E.S. y Centros privados impartirán al menos dos modalidades de bachillerato, ofreciendo todas las materias propias de dichas modalidades, y algún Ciclo Formativo de grado medio y de grado superior, sin perjuicio de lo preceptuado por la disposición adicional 5.ª del R.D. 389/1992 de 15 de abril para las Escuelas de Artes que impartan la modalidad de Artes del Bachillerato y de las autorizaciones excepcionales que pueda conceder el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

3.– El máximo de alumnos por grupo será de 35 en Bachillerato, y de 25 en cada ciclo formativo.

*Segunda.–*

1.– Las enseñanzas correspondientes al Bachillerato y a los Ciclos Formativos serán impartidas en los Centros Públicos por profesores de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza secundaria, y profesores técnicos de Formación Profesional de acuerdo con lo que disponen los RR. DD. 1701/1991 y 1635/1995, así como los RR.DD. que establecen cada uno de los títulos en los que se articula la Formación Profesional Específica, sin perjuicio de la posibilidad de contratación para determinados módulos profesionales, siempre con carácter temporal y en régimen de derecho administrativo, de profesionales que desarrollen su actividad en el ámbito laboral, de acuerdo con el artículo 33.2 de la LOGSE.

2.– Para la adscripción concreta a las materias y a los módulos profesionales, así como a las nuevas especialidades del profesorado, se estará a lo que determinan los mencionados RR.DD.

3.– Las materias optativas que no correspondan a denominaciones atribuidas previamente a los profesores de ninguna especialidad así como los módulos profesionales establecidos por la CAPV serán impartidos por los profesores que se mencionan en los respectivos currículos. Las materias optativas que autorice el Departamento de Educación, Universidades e Investigación de acuerdo con lo que se dispone en el artículo 8 de este decreto serán impartidas exclusivamente por el profesorado que se indique en la respectiva autorización.

4.– En los Centros privados los profesores que impartan enseñanzas correspondientes al Bachillerato deberán cumplir los requisitos establecidos por la Orden de 24 de julio/95; los que impartan enseñanzas correspondientes a los Ciclos Formativos deberán cumplir los requisitos que se determinen a tenor de lo establecido en la disposición adicional segunda del RD. 1635/1995.

*Hirugarrena.–*

1.– Batxilergoko guztientzako jakintzagaiak eta musikako irakaskuntza arautuetako erdi-mailako hirugarren ziklokoak egin dituzten ikasleek Batxilergoko titulua jasotzeko eskubidea dute. Batxilergo–mota horrek Musika Batxilergoa izango du izena.

2.– Batxilergoko titulua eskuratzeko eskubidea izango dute, halaber, Batxilergoko guztientzako irakasgaiak gainditu, dantza irakaskuntza arautuetako erdi mailako hirugarren zikloa amaitu duten ikasleek.

3.– Ikasleak Batxilergoko guztientzako gaiak egin dituen tokiko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeari dagokio Batxilergoko titulua emateko proposamena egitea.

*Laugarrena.–*

1.– 5. atalean ezarritako Batxilergoko gaitasun orokorrak errespetatuz eta titulu bakoitzerako ezarritako oinarrizko gaitasunak aintzat hartuz, hezkuntza–premia bereziak dituzten ikasleek, Bigarren Hezkuntzan graduatu direnek, Batxilergoko eta Erdi-mailako Lanbide Heziketako irakaskuntzak egin ahal izango dituzte. Ikastetxeek banako curriculum–egokitzapenak egingo dituzte, gai hori berariaz arautzen duten lege–xedapenak betez.

2.– Hezkuntza–premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazioan, aurreko puntuan aipatu den curriculum–egokitzapen nabarmena egin zaienean, egokitzapen horretan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan oinarrizko erreferentziatzat.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehena.–* 6. atalean ezarritakoaren kaltetan izan gabe, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, salbuespen gisa, baimena eman ahal izango die ikastetxe berean ikasketa horien bigarren mailan matrikulaturik dauden ikasleei BBB eta UBIko irakaskuntzak ematen jarraitzeko, Batxilergoko irakaskuntza emateko 1004/1991 Errege Dekretuak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eta hala eskatzen duten ikastetxeei.

*Bigarrena.–* Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, salbuespen gisa, baimena eman ahal izango die ikastetxeei, hala eskatzen badute, LHko ikasketak osorik edo zati batean mantentzeko, Sailak ezarritakoaren ildotik.

INDARGABETZEKO XEDAPENA

Indar gabe uzten dira azaroaren 22ko 447/1994 Dekretuko, Lanbide Heziketako irakaskuntzen antolamendu orokorra egin eta dagozkion tituluei buruzko jarraibideak ematen zitueneko, 6. atala eta VI eta VII atalburuak, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1994ko irailaren 26ko Agindua, Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxeetan Batxilergoa aurreratuta

*Tercera.–*

1.– Los alumnos que hayan cursado las materias comunes del Bachillerato y el tercer ciclo del grado medio de las enseñanzas regladas de música tendrán derecho al título de bachiller. Este bachillerato tendrá la denominación específica de bachillerato de música.

2.– También tendrán derecho a obtener el título de bachiller, mediante la superación de las materias comunes de bachillerato los alumnos que hayan terminado el tercer ciclo del grado medio de las enseñanzas regladas de danza.

3.– La propuesta de expedición de título de bachiller corresponderá siempre al Centro de Enseñanza Secundaria en el que el alumno haya cursado las materias comunes del Bachillerato.

*Cuarta.–*

1.– Respetando en todo caso las capacidades generales de bachillerato establecidas en el artículo 5 y las competencias básicas establecidas para cada título, los alumnos y alumnas con necesidades educativas especiales, graduados en educación Secundaria, podrán cursar las enseñanzas de Bachillerato y ciclos formativos de Formación Profesional de grado medio. Los Centros realizarán las adaptaciones curriculares individuales de acuerdo con las disposiciones que regulan específicamente la materia.

2.– En la evaluación del alumnado con necesidades educativas especiales que hayan seguido una adaptación curricular significativa a que se refiere el apartado anterior de esta disposición se tendrá en cuenta dicha circunstancia, tomando como referencia básica los criterios establecidos en dicha adaptación curricular.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 6, el Departamento de Educación, Universidades en Investigación, con carácter excepcional, podrá autorizar a los Centros que no cumplan los requisitos establecidos por el R.D. 1004/1991 para impartir enseñanzas de Bachillerato y así lo soliciten, a que continúen impartiendo las enseñanzas de BUP y COU a los alumnos actualmente matriculados en el segundo curso de dichos estudios en el propio Centro.

*Segunda.–* Igualmente el Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá autorizar excepcionalmente a los Centros que así lo soliciten a mantener total o parcialmente la impartición de enseñanzas de FP hasta su extinción de acuerdo con lo establecido por el mismo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados, el artículo 6 y los capítulos VI y VIII del Decreto 447/1994, de 22 de noviembre, por el que se establece la ordenación general de las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos, y la Orden del Departamento de Educación, Universidades e Investigación de 26 de septiembre de 1994, por la que se regula la -implantación anticipada

ezartzea arautzen zuena, Agindu horren arabera bigarren mailara igaro diren ikasleei dagokienean izan ezik, ikasle horiek bertan xedatutakoaren arabera amaitu ahal izango baitituzte Batxilergoko ikasketak.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena*.– Baimena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari Dekretu hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak emateko.

*Bigarrena*.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko apirilaren 29an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

del Bachillerato en los Centros de la Comunidad Autónoma del País Vasco, excepto en lo que se refiere a los alumnos que hayan promocionado al segundo curso de acuerdo con dicha Orden, que podrán terminar los estudios de Bachillerato de acuerdo lo dispuesto por la misma.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera*.– Se autoriza al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

*Segunda*.– Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de abril de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

# ERANSKINA

Batxilergoaren modalitateak:

## NATUR ETA OSASUN-ZIENTZIEN BATXILERGOA

| 1. MAILA | | 2. MAILA | |
|---|---|---|---|
| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| • Gaztelania eta Literatura | 3 | • Historia | 3 |
| • Euskara eta Literatura | 3 | • Gaztelania eta Literatura | 3 |
| • Atzerriko Hizkuntza | 3 | • Euskara eta Literatura | 3 |
| • Filosofia | 3 | • Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| • Gorputz Hezkuntza | 2 | | |
| • Erlijioa/Alternatiboa (aukeratzeko) | 2 | | |
| • Tutoretza | 1 | | |
| Guztira | 17 | Guztira | 12 |
| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak | MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| • Matematika I | | • Kimika (*) | |
| • Fisika eta Kimika | | • Biologia (*) | |
| • Biologia eta Geologia | | • Fisika (*) | |
| • Marrazketa Teknikoa | | • Matematika II (*) | |
| • Lur eta ingurugiro-zientziak | | • 1. mailan hautatu ez zirenak | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 | 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |
| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| 4 orduko jakintzagai 1 | 4 | 4 orduko 3 jakintzagai | 8 |
| GUZTIZKO OROKORRA | 33 | GUZTIZKO OROKORRA | 32 |

GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIEN BATXILERGOA

| 1.MAILA | | 2. MAILA | |
|---|---|---|---|
| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| • Gaztelania eta Literatura | 3 | • Historia | 3 |
| • Euskara eta Literatura | 3 | • Gaztelania eta Literatura | 3 |
| • Atzerriko Hizkuntza | 3 | • Euskara eta Literatura | 3 |
| • Filosofia | 3 | • Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| • Gorputz Hezkuntza | 2 | | |
| • Erlijioa/Alternatiboa (aukeratzeko) | 2 | | |
| • Tutoretza | 1 | | |
| Guztira | 17 | Guztira | 12 |
| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak | MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| • Gizarte-Zientziei aplikatutako Matematika I | | • Geografía | |
| • Historia Garaikidea | | • Grekera | |
| • Latina I | | • Latina II(*) | |
| • Artearen Historia | | • Gizarte-Zientziei aplikatutako Matematika II (*) | |
| • Ekonomia | | • Ekonomia eta Enpresa-Antolaketa (*) | |
| | | • Filosofiaren Historia | |
| | | • 1. mailan hautatu ez zirenak | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 | 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |
| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak | AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
| 4 orduko jakintzagai 1 | 4 | 4 orduko 2 jakintzagai | 8 |
| GUZTIZKO OROKORRA | 33 | GUZTIZKO OROKORRA | 32 |

TEKNOLOGI BATXILERGOA

1. MAILA

| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| • Gaztelania eta Literatura | 3 |
| • Euskara eta Literatura | 3 |
| • Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| • Filosofia | 3 |
| • Gorputz Hezkuntza | 2 |
| • Erlijioa/Alternatiboa (aukeratzeko) | 2 |
| • Tutoretza | 1 |
| Guztira | 17 |

| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| • Industri Teknologia 1 | |
| • Matematika I | |
| • Fisika eta Kimika | |
| • Marrazketa Teknikoa | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |

| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| 4 orduko jakintzagai 1 | 4 |
| GUZTIZKO OROKORRA | 33 |

2. MAILA

| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| • Historia | 3 |
| • Gaztelania eta Literatura | 3 |
| • Euskara eta Literatura | 3 |
| • Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| Guztira | 12 |

| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| • Industri Teknologia II (*) | |
| • Matematika II (*) | |
| • Fisika (*) | |
| • Elektroteknia (*) | |
| • Mekanika(*) | |
| • 1. mailan hautatu ez zirenak | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |

| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| 4 orduko 2 jakintzagai | 8 |
| GUZTIZKO OROKORRA | 32 |

ARTE BATXILERGOA

1. MAILA

| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| • Gaztelania eta Literatura | 3 |
| • Euskara eta Literatura | 3 |
| • Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| • Filosofia | 3 |
| • Gorputz Hezkuntza | 2 |
| • Erlijioa/Alternatiboa (aukeratzeko) | 2 |
| • Tutoretza | 1 |
| Guztira | 17 |

| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| • Arte Marrazketa I | |
| • Marrazketa Teknikoa | |
| • Bolumena | |
| • Artearen Historia | |
| • Adierazpen Grafiko eta | |
| • Plastikoaren Teknikak | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |

| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| 4 orduko jakintzagai 1 | 4 |
| GUZTIZKO OROKORRA | 33 |

2. MAILA

| GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| • Historia | 3 |
| • Gaztelania eta Literatura | 3 |
| • Euskara eta Literatura | 3 |
| • Atzerriko Hizkuntza | 3 |
| Guztira | 12 |

| MODALITATE JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| • Arte Marrazketa II | |
| • Irudia | |
| • Diseinuaren Oinarriak | |
| • 1. mailan hautatu ez zirenak | |
| 4 orduko 3 jakintzagai | 12 |

| AUKERAKO JAKINTZAGAIAK | Orduak |
|---|---|
| 4 orduko 2 jakintzagai | 8 |
| GUZTIZKO OROKORRA | 32 |

*ANEXO*

*Modalidades de Bachillerato:*

*BACHILLERATO DE CIENCIAS DE LA NATURALEZA Y DE LA SALUD*

*CURSO PRIMERO*

| MATERIAS COMUNES | Horas |
|---|---|
| • Lengua castellana y Literatura | 3 |
| • Euskera y Literatura | 3 |
| • Lengua Extranjera | 3 |
| • Filosofía | 3 |
| • Educación Física | 2 |
| • Religión/Alternativa (a elegir) | 2 |
| • Tutoría | 1 |
| Total | 17 |

| MATERIAS MODALIDAD | Horas |
|---|---|
| • Matemáticas I | |
| • Física y Química | |
| • Biología y Geología | |
| • Dibujo Técnico | |
| • Ciencias de la Tierra y del Medio ambiente | |
| 3 materias de 4 horas | 12 |

| MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
|---|---|
| 1 materia de 4 horas | 4 |
| TOTAL GENERAL | 33 |

*CURSO SEGUNDO*

| MATERIAS COMUNES | Horas |
|---|---|
| • Historia | 3 |
| • Lengua castellana y Literatura | 3 |
| • Euskera y Literatura | 3 |
| • Lengua extranjera | 3 |
| Total | 12 |

| MATERIAS MODALIDAD | Horas |
|---|---|
| • Química (*) | |
| • Biología (*) | |
| • Física (*) | |
| • Matemáticas II (*) | |
| • Las no elegidas en el curso 1 | |
| 3 materias de 4 horas | 12 |

| MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
|---|---|
| 2 materias de 4 horas | 8 |
| TOTAL GENERAL | 32 |

*BACHILLERATO DE HUMANIDADES Y CIENCIAS SOCIALES*

| CURSO PRIMERO | | CURSO SEGUNDO | |
|---|---|---|---|
| MATERIAS COMUNES | Horas | MATERIAS COMUNES | Horas |
| • Lengua castellana y Literatura | 3 | • Historia | 3 |
| • Euskera y Literatura | 3 | • Lengua castellana y Literatura | 3 |
| • Lengua Extranjera | 3 | • Euskera y Literatura | 3 |
| • Filosofía | 3 | • Lengua extranjera | 3 |
| • Educación Física | 2 | | |
| • Religión/Alternativa(a elegir) | 2 | | |
| • Tutoría | 1 | | |
| Total | 17 | Total | 12 |
| MATERIAS MODALIDAD | Horas | MATERIAS MODALIDAD | Horas |
| • Matemáticas CC.Sociales I | | • Geografía | |
| • H.ª del Mundo contemporáneo | | • Griego | |
| • Latín I | | • Latín II(*) | |
| • H.ª del Arte | | • Matemáticas CC.SS. II (*) | |
| • Economía | | • Economía y Organización de empresas (*) | |
| | | • H.ª de la Filosofía | |
| | | • Las no elegidas en el curso 1 | |
| 3 materias de 4 horas | 12 | 3 materias de 4 horas | 12 |
| MATERIAS OPTATIVAS | Horas | MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
| 1 materia de 4 horas | 4 | 2 materias de 4 horas | 8 |
| TOTAL GENERAL | 33 | TOTAL GENERAL | 32 |

*BACHILLERATO DE TECNOLOGÍA*

*CURSO PRIMERO*

| MATERIAS COMUNES | Horas |
|---|---|
| • Lengua castellana y Literatura | 3 |
| • Euskera y Literatura | 3 |
| • Lengua Extranjera | 3 |
| • Filosofía | 3 |
| • Educación Física | 2 |
| • Religión /Alternativa(a elegir) | 2 |
| • Tutoría | 1 |
| Total | 17 |

| MATERIAS MODALIDAD | Horas |
|---|---|
| • Tecnología Industrial I | |
| • Matemáticas I | |
| • Física y Química | |
| • Dibujo Técnico | |
| 3 materias de 4 horas | 12 |

| MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
|---|---|
| 1 materia de 4 horas | 4 |
| TOTAL GENERAL | 33 |

*CURSO SEGUNDO*

| MATERIAS COMUNES | Horas |
|---|---|
| • Historia | 3 |
| • Lengua castellana y Literatura | 3 |
| • Euskera y Literatura | 3 |
| • Lengua extranjera | 3 |
| Total | 12 |

| MATERIAS MODALIDAD | Horas |
|---|---|
| • Tecnología Industrial II (*) | |
| • Matemáticas II (*) | |
| • Física (*) | |
| • Electrotecnia (*) | |
| • Mecánica(*) | |
| • Las no elegidas en el curso 1 | |
| 3 materias de 4 horas | 12 |

| MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
|---|---|
| 2 materias de 4 horas | 8 |
| TOTAL GENERAL | 32 |

BACHILLERATO DE ARTES

| CURSO PRIMERO | | CURSO SEGUNDO | |
|---|---|---|---|
| MATERIAS COMUNES | Horas | MATERIAS COMUNES | Horas |
| • Lengua castellana y Literatura | 3 | • Historia | 3 |
| • Euskera y Literatura | 3 | • Lengua castellana y Literatura | 3 |
| • Lengua Extranjera | 3 | • Euskera y Literatura | 3 |
| • Filosofía | 3 | • Lengua extranjera | 3 |
| • Educación Física | 2 | | |
| • Religión /Alternativa(a elegir) | 2 | | |
| • Tutoría | 1 | | |
| Total | 17 | Total | 12 |
| MATERIAS MODALIDAD | Horas | MATERIAS MODALIDAD | Horas |
| • Dibujo Artístico I | | • Dibujo Artístico II (*) | |
| • Dibujo Técnico | | • Imagen | |
| • Volumen | | • Fundamentos de Diseño | |
| • H.ª del Arte | | • Las no elegidas en el curso 1 | |
| • Técnicas de Expresión Gráfico Plástica | | | |
| 3 materias de 4 horas | 12 | 3 materias de 4 horas | 12 |
| MATERIAS OPTATIVAS | Horas | MATERIAS OPTATIVAS | Horas |
| 1 materia de 4 horas | 4 | 2 materias de 4 horas | 8 |
| TOTAL GENERAL | 33 | TOTAL GENERAL | 32 |